

Lexikoa lantzen

Pello Esnal

HABEk, euskalduntzearen laugarren maila diseinatzean, bazekien lexikoa izango zuela langai berezietako bat. Arrazoi askorengatik. Hasteko, euskara (gizarte- eta hizkuntz) normalizazio-bidean delako eta laugarren mailako ikaslea, hain zuzen, normalizatu gabe dagoen esparru bateko hizkuntz erabiltzaile kualifikatu (izango) delako.

HABEk lehendik ere topo egina zuen arazo berberarekin: “Laneko euskara” saileko material didaktikoa prestatu zuenean, Elhuyarren eta UZEIren eskutik.

Orain, laugarren maila garatzean, ondo datorkio orduan egina. Eta, hura abiapuntu hartuta, beste urrats bat egin nahi du, beti ere ikuspegi didaktikoa gidari.

HABEk, hiritar EGAdunen euskara-gaitasuna areagotu nahian, eginahal berezia egin zuen duela urte batzuk, lau liburu didaktiko plazaratuz, “Laneko euskara” goiburu zutenak: *Zientzia eta teknika* (Elhuyar, 1986), *Aurrezki-kutxak eta banka* (Elhuyar, 1987), *Udal-administrazioa* (Elhuyar, 1988) eta *Osasun-zaintza* (UZEI, Elhuyar, 1992).

Orain, laugarren maila garatzen ari garenean, abiapuntu egokia eskaintzen digu material horrek, lexikoaren lanketa bideratzeko. Baina, aurretik, beharrezkoa dugu konturatzeari errotik ezberdinak direla planteamenduz “Laneko euskara” eta euskalduntzearen laugarren maila, HABEren kurrikulua (HEOK) jauzi-eragile. Eta eskura izango ditugu, une oro, gaia jorratzen duten zenbait lan (Villasante, 1981; Euskaltzaindia, 1987; 1991; 1992; Zubimendi, 2004).


Bi alde funtsezko daude “Laneko euskara”ren eta laugarren mailaren artean.

Lehena, ikuspegi osoari dagokio. Labur(regi) esanda, formula honetan bil genezake zer den “laneko euskara”:

“Laneko euskara” = EGA + xede berezietarako euskara

Laugarren mailak, ordea, ikaslearen gaitasun komunikatibo orokorra garatzea du helburu eta gaitasun orokor hori, aldi berean, ikasleari dago-kion jarduera-arloan gauzatzeko gaitzea bera. Era grafikoan irudikatuta:

.1:



Baina beste funtsezko aldaketa bat ere eragiten ari da HEOK, kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak bereiziz. Euskalduntzearen laugarren mailan ere, hiru aurrekoetan bezala, oinarritzkoa da bereiztea bi eduki mota horiek. Lexikoaren arloan, esaterako, kontua ez da jakitea halako hitza mailegu den ala ez, edo hitz eratorri den ala konposatu, edo zer motatako hitz konposatu den (dvandva, bahuvr̥hi ala tatpurusa); baizik horiek egoki erabiltzen ikastea. Horrek ez gaitu eraman behar, hala ere, kontzeptuzko edukiak baztertzeraz, ezpada ondo baliatzeraz, jarduera didaktiko eragile baten zerbitzuan. Hitz batean, lexikoa erabiltzen ikasi behar da laugarren mailan ere; eta horretarako baliatuko ditugu, besteak beste, kontzeptuzko edukiak, betiere lexikoaren erabilera ikasteko balio lezaketen neurrian.

Errotiko planteamendu-aldaketa horrek bere ondorioak ditu; hortik sortzen dira, besteak beste, lexikoa lantzeko oinarritzko irizpideak. Hauexek ikusiko ditugu, labur-labur, lehenengo puntuan. Eta ondoren, bigarrenan, hiru testu erabiliz bideratuko dugu lexikoaren lanketa.

1. Oinarritzko irizpideak

Guztira, lau oinarritzko irizpide dira.

Lehenengoa, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboaren harikoa da. Laugarren mailan ere, gaitasun komunikatiboaren lau gaitasunak landuko ditugu, horretarako behar diren edukiak jorratuz: soziolinguistikoak, testualak, gramatikalak eta estrategikoak. Eta, hain zuzen, horien baitan landuko dugu lexikoaren erabilera, era integratuan, gainerako osagaiekin batera, ekintza komunikatiboaren (testuaren) baitan, aurreko mailetan landutakoa garatuz.

Bigarren eta hirugarren irizpideak, arestian azaldutako bereizketak eraginak dira: kontzeptuzko edukien eta prozedurazkoen artekoak. Bereizketak lexikoaren lanketa ez-exhaustibora garamatza. Horrela, albora utziko ditugu, lehenik, lexikoa ongi erabiltzeko beharrezko ez ditugun ezagutzak. Bigarrenik, ez ditugu hitz-arlo guztiak landuko espresuki; batetik, lehen hiru mailetan landuak izango ditugulako batzuk (oinarrizkoenak) eta, bestetik, ikasleen beharrek aginduko digutelako zer landu.

Laugarren irizpidea, azkenik, ortografiari (marraren erabilerari) dagokio; uste baitugu mesedegarria izango zaigula irizpide finko bat zehaztea.

- *Ekintza komunikatiboaren (testuaren) baitan.*–

Egitea da hitz egitea: (ahozko edo idatzizko) testu batean gauzatzen den egitea. Eginez ikasten dugu egiten; eta lexikoa erabiliz, lexikoa erabiltzen.

Bigarren puntuan, hain zuzen, hiru testu izango ditugu abiapuntu lexikoa lantzeko. Ez dira nolanhiko testuak, baizik hirugarren eta laugarren mailako ekintza komunikatiboak gauzatzen dituzten testu ereduak. Horiak aztertuz eta horrelakoak sortuz (ekintza komunikatibo bertsuak gauzatuz) joango gara lexikoa erabiltzen ere ikasten.

- *Ikaslearen beharren arabera.*–

Aurreratu dugunez, kontua ez da lexikoaz jakitea, baizik lexikoa erabiltzen jakitea. Agian, ikasleren bati ondo etorriko zaio jakitea dena delako hitza mailegu edo eratorri edo elkartu dela, baina beste bati ez; eta aldeantiz. Horregatik ikusi behar dugu zer neurritan eman ikasleei kontzeptuzko edukiak eta zer neurritan ez; eta, horrekin batera, testu jakin bateko zein hitz landu eta zein ez.

- *Sei hitz-sail.*–

Gainera, bigarren irizpide horren harian, ez dago lexikoaren arlo osoa landu beharrik. Lehenik landuak baitaude sail batzuk. Bestetik, oinarrizkoak landuz besteen lanketa ere bidera dezakegulako.

Uste dut nahikoa izan dezakegula sei hitz-sail lantzea. Honako hauek: 1) aposizioa, 2) mailegu-hitzak, 3) hitz eratorriak, 4) hitz elkartu lotuak, 5) hitz elkartu marraz lotuak eta 6) hitz elkartu marraz lotu gabeak.

Sailkapena ez da homogeneoa; hau da, irizpide bakar baten arabera egingakoa. Baina baliagarria izan dezakegu. Orain argituko dugu sailkapen honen arrazoia.

- *Ortografiari (marrari) buruz.*–

Hitz elkartuen idazkera dela-eta, arazoak sortzen ditu marraren erabilerak: zein hitz elkartu lotu marraz eta zein ez.

Jakina denez, Euskaltzaindiak bost sailetan banatu zituen hitz elkartuak, idaztarauen ikuspegitik (Euskaltzaindia, 1992: 136-140): 1) bereiz idaztekoak direnak, 2) marrarekin idaztekoak direnak, 3) loturik idaztekoak

direnak, 4) marrarekin edo bereiz idatz daitezkeenak eta 5) marrarekin edo loturik idatz daitezkeenak. Hain zuzen, azken bi hauek sortzen dituzte arazoak.

Laugarren mailan, hobe dugu Euskaltzaindiak aukeran utzitakoetan forma bat hobestea. Eta uste dugu aurrerabide egokia eskaintzen dutela, hain zuzen, Hezkuntza Sailaren Ikasmaterialen Aholku Batzordeak eginitako gomendioek (Zubimendi, 2004: 59-70), bai hartutako erabakiengatik, bai izandako motiboengatik (Zubimendi, 2004: 66). Eta oraingoz, behintzat, horien arabera jokatu dugu.

Orain, erabaki honen harian ulertzen da zergatik, (hirugarren irizpidean) sei hitz-sail bereiztean, hitz elkartuen loturen zer-nolakoa ere hartu dugun sailkapen-irizpidetzat, hitzen kategoriarekin batera.

2. Adibidez Puntu honetan, hiru testuren lexikoa aztertuko dugu, oso era soilean.

Hiru testuak dira ereduak: hirugarren mailako ekintza komunikatibo baten isla lehenengoa (Mungia, 2004); laugarren mailako ekintza komunikatiboarenak hurrengo biak (Agirre, 1992; Dorronsoro, 1985).

Lanketa didaktikoaren lehen urratsera mugatuko gara, eta betiere adibide gisa; irakasleari berari baitagokio, bere ikasle-taldearen arabera, zer landu eta nola landu erabakitzea.

Esan gabe doa: lanketarako hitzak ez ditugu beti irizpide beraren arabera aukeratu.

Etorkinak

Etorkinak

1. Aurreko iluntze batean Antiguako **pilotalekura** joan nintzen 21:00ak aldera, eta handik ordu laurden batera ikusi nituen etortzen. Ez ziren bat edo bi, dozenaren bat baizik. Isil-isilik eseri ziren alde batean, zer edo zer atera zuten jateko eta bertan gelditu ziren pilotariei begira. Gero, **udaltzain** batzuk igaro ziren beren aurretik lasai, baina porra eskuan, eta, azkenik, 21:30ak aldera-edo kartoi batzuk hartuta **desagertu** ziren, **lo-tokiaren** bila, non-bait.
2. Eta gu, **pilotalekuaren** beste aldean, harri eta zur. Batzuetan, haiei begira; beste batzuetan, berriz, geure artean berriketan, sinetsi ezinik...
3. **Film** beltz eta ilun bateko irudiak ziruditen arren, egiazkoak ziren, bene-benetakoak, mundu honetako **errealitate** gordinaren ondorio zuzena, miseriak eragindakoa, alegia. Etxerik gabeko **etorkinez** ari naiz. Eta hementxe ditugu, gure alboan, Donostiako txokorik donostiarrenetako batean.
4. Aurrekoa gau freskoa izan zen, etxeko epelera itzuli ginenontzat, eta nahikoa hotza, seguru aski, etxerik gabekoentzat. Lo egin al

duzue sekula kale gorrian? Nik, behin, gaztetxo nintzela, Pirinioetatik itzuli, eta Jacan autobusa galdu genuen batean. Udazkena zen, eta **lo-zaku** xahar batean sartuta egin nuen **gaupasa, berokia** jantzita eta ongi janda. Eta, hala ere, hotzak egon nintzen gau osoan.

5. **Pilotalekutik** alde egin baino lehen, auzotar batekin hitz egin genuen: inguruko **bizilagunak** beldurtuta daudela, etorkin horiek hor bertan errotuz gero, txarrera egin dezakeelako egoerak; etxe barruan egin ohi ditugunak denon begien bistan egin dituztela; Caritasek kalean dituen arropa biltzeko **edukiontzietatik** harrapatzen dituztela jantziak; goizean goiz **Antigua auzotik** Erdialdera joaten direla auskalo nora eta zertara; gainerako **etorkinak** (afrikarrak, amerikarrak...) lanean aritzen direla eta horiek, nonbait, ez; **konponbide** zaila duen gaia dela, **konplexua**; ez genukeela egon nahi haien **larruazalean**; zer edo zer egin beharko litzatekeela laguntzeko, etab., etab., etab.
6. Bart ederki lo egin ondoren, behin eta berriro etorri zait burura haien irudia. Eta neure baitan sentitzen dudana **ondoeza** arintzeko idatzi dut gutun hau. Ez dut nahi beste alde batera begiratu, ezer gertatuko ez balitz bezala. Gu bezalako pertsonak dira, eta uste dut **irtenbideren** bat eskaini behar diegula. Nik, behintzat, horixe nahiko nuke.
7. Horregatik, galdera hauxe egin nahi diot **etorkin** horiei lagundu diezaiekeen edonori: zer egin dezakegu? Negua badator, eta ez da giro izango kale gorrian.

Alex Mungia

– Aposizioa:

Antigua auzo (5)

– Zenbait mailegu-hitz:

film (3), errealitate (3), konplexu (5).

– Zenbait hitz eratorri:

udaltzain (1), desagertu (1), etorkin (3, 5, 7), beroki (4), konponbide (5), irtenbide (6).

– Hitz elkartu lotuak:

pilotaleku (1, 2, 5), gaupasa (4), bizilagun (5), edukiontzi (5), larruazal (5), ondoez (6).

– Hitz elkartu marraz lotuak:

lo-toki (1), lo-zaku (4).

1. **Autismoa** haurtzaroko gaixotasun bat da; beste pertsonetik harreman-eskasia nabarmenak dituena. Bere sintomak 2-5 urte bitartean agertzen dira; adin horretan ume normalak beren gizar-te mailako portaera erabat finkatzen hasiak baitira, baina ume autisten gurasoak lehenagotik hasi dira konturatzen beren umea “arraroa” dela.
2. Ume autistak onegiak izan ohi dira, ia inoiz ez dute negarrik egiten edo ez dira urduritzen, eta beren sehaskan luze egon daitezke, lasai-lasai, bakarrik egon arren. Beren gurasoen aurrean “distraituta” bezala egoten dira eta ez diete haien **maitasun-ekintzei** erantzuten.
3. **Mintzaira-problema**k, gutxi-asko grabeak, edukitzen dituzte ume autistek. Batzuetan, mintzaira ez da batere garatzen; beste batzuetan, berriz, umea hitz egiten hasten da, baina bi urte bete-ta, hortxe geratzen da ez atzera ez aurrera. Autismoan oso tipikoa da beste pertsona batek esandako hitzak edo esaldiak umearen adinaren arabera **automatikoki** errepikatzea. Mintzairak ongi eboluzionatzen duen kasuetan ere, ez da normal garatzen (**sintaxian** bitxikeriak agertzen baitira) eta hizkera **monotonoa** izan ohi da.
4. Ume autisten beste ezaugarri bat gauza eta tresnenganako interesa da. Beren **ingurugiroa** konstante, beti berdin, mantentzea gus-tatzen zaie. Edozein aldaketak (eguneroko paseoan egin ohi duen bidean aldaketatxoren batek, edota etxean zerbait lekuz aldatze-ak, adibidez) larritasun eta estuasun handia sortzen die. Beren **portaeraren** alor honek asko mugatzen ditu, behin eta berriz errepikatzen dituzten jokabide eta erritmo multzo mugatu batzuk soilik bereganatzen dituztelako.
5. Gaur egun, oraindik ez dira ezagutzen autismoaren sustraiak eta arrazoiak. Hasieran, ikertzaileek haurrarekiko maitasun faltaga-tik sortzen zela uste zuten. Baina azkenaldi honetan, kasurik gehienetan sustrai **organikoren** bat, **genetikaren** arlokoa, badela onartzen da. Horren adibide eta lekuko da lau autistetatik hiru mutikoak izatea eta bakarra neska izatea.
6. Autismoaren arrazoi zehatza ezagutzen ez denez, gaixotasun honentzat ez dago **tratamendu** espezifikorik, baina **frogatuta** dago ume autistei heziketa berezia eskaintzen zaienean asko hobetzen direla.
7. Pronostikoari dagokionez, askoz ere hobea da bost urterekin beste pertsonekin komunikatzeko modua duen ume autistarena, mintzaira bidez inolako harremanik ezin lor dezakeen umearena baino.
8. GAUTENAk, Gipuzkoako Autisten Guraso Elkarteak, argitaratu zuen liburuxka batetik atera dira ondorengo datu asko.

9. Zer da autismoa?

10. Leo Kranner-ek sindrome hau deskribatu zuenetik, berrogeita bost urteotan autismoaren kontzeptuak interpretazio desberdinak eduki ditu, eta honek nahaste-borraste handia sortu du.
11. Gaur egun, eta OME-ren irizpideei jarraituz, aditu gehienek Autismoa *bizitzako hirugarren urtea baino lehen* agertzen den jokabide multzo bezala ulertzen dute; umea garapen normaletik oso bestelako bideetan barrena murgiltzen duten jokabide multzo bezala, hain zuzen.
12. ***Gizarte-harremanetarako ezintasuna duten umeak*** izan ohi dira. Adibidez, beren gurasoak etxean hara eta hona dabiltzanean ez diete jarraitzen; ezta begiradarekin ere. Ez zaie kontaktu edo ukipen fisikorik gustatzen. Ez dute **lagunarteko irribarrerik**; ezta kanpoko edo arrotzenganako beldurrik ere...
13. ***Mintzaira-garapenean atzerapenak eta trastornoak*** eduki ohi dituzte. Mintzaira polikiegi gara daiteke, batere ez garatu edota ongi hasi baina bat-batean eten eta geratu. Horietako erdiek, zerbait esaten ikasi dutenek, “ekolalia” deitzen zaiona edukiko dute, hau da, egiten zaizkien galderei erantzuteko oihartzun moduan galdetzailearen azken hitzak errepikatu egingo dituzte. Bestalde, *zu* eta *ni* pertsonak nahasten dituzte.
14. *Beren jostailuak erabiltzen ikasten ez duten umeak dira.* Ez dute fantasia batere lantzen, eta beren jolasak **suntsikorrak** (apurtzailak) dira; monotonoak, **errepikakorrak**.
15. ***Estimulu sentorialekiko erantzuna ere aldatua*** eduki ohi dute ume hauek. Ume autista berberak, une **diferenteetan**, **desberdin** erantzungo die estimuluei (argiei, soinuei, usainei, etab.); batere ez batzuetan eta ikaragarri besteetan. Zenbaitetan, txoratuta bezala egongo dira horien aurrean. Bestetan, berriz, ikusi edo atzeman ere ez dituztela egiten dirudi.
16. *Beren garapena ez da armonikoki koordinatzen.* Ume hauengan garapenaren hiru faseen (**motorearen**, ezagutzaren eta **sozialaren**) **koordinazio** normala ez da burutzen. Ume hauen **garapen-mailak gorabehera** handiak dauzka, zenbait kasutan ume horiek beren adinari dagokiona baino maila altuagoan egoten direlarik.
17. Ume batek hiru urte bete aurretik portaera horiek guztiak ditue-nean, autista dela esan daiteke.
18. **Zer egin ume autistekin?**
19. **Errehabilitazio-programaren** helburua hau da: gaitzak jota dagoen ume bakoitzak bere gaitasun edo ahalmen **potentzialik** handiena lortzea. Eta horretarako, programa horiek ahalik eta **ingurugiro normalizatuenean** edo normalizatzaileenean aplikatu behar dira.

20. Ume autista bakoitzak programa indibidualizatua behar du; teknikariek gurasoekin batera prestatutako programa, aldizka-aldizka berrikusiko dena.
21. Normalean bost dira landu beharreko arlorik funtsezkoenak: eguneroko **bizimoduarekin** lotutako jarduerak (janztea, garbitzea, jatea, higiena eta norberaren autonomia), pedagogia espezializatua, komunikatzeko gaitasuna lantzea (edo ikastea, behar izanez gero), sozializazioa eta **jokabidearen** normalizazioa eta okupaziozko **terapia**.

Jabier Agirre

– Zenbait mailegu-hitz:

autismo (1...), sintaxi (3), monotono (3), organiko (5), genetik (5), tratamendu (6), frogatu (6), estimulu (15), sensorial (15), aldatu (15), diferente (15), motore (16), sozial (16), koordinazio (16), potentzial (19), normalizatu (19), terapia (21).

– Zenbait hitz eratorri:

automatikoki (3), portaera (4), suntsikor (14), errepikakor (14), desberdin (15), armonikoki (16).

– Hitz elkartu lotuak:

ingurugiro (4, 19), lagunarte (12), irribarre (12), gorabehera (16), bizimodu (21), jokabide (21).

– Hitz elkartu marraz lotuak:

maitasun-ekintza (2), mintzaira-problema (3), gizarte-harreman (12), mintzaira-garapen (13), garapen-maila (16), errehabilitazio-problema (19).

*Emakumea zenbait
euskal idazleren
begietan*

EMAKUMEA ZENBAIT EUSKAL IDAZLEREN BEGIETAN

1. Emakumea, lurtean azaldu zenetik, gaizki ikusia izan da, batzuetan bere edertasunak gizonaren begiak itsutu dituelako, bestetan etsaiaren eta bekatuaren zama bizkarreratu zaiolako.
2. Emakumea aztertzerakoan, ezin dugu espirituaren eta gorputzaren bereizketa klasikoa ahaztu; emakumeari gorputzaren alderditik begiratu izan baitzaio. Emakumearen gorputzari gizonetzkoarenari baino garrantzi gehiago emateko ohitura dago. Gizonari espirituaren **bertuteak** izendatu ohi zaizkio eta emakumeari gorputzarenak. Pintoreek eta eskultoreek edertasun fisikoa gehienetan emakumearen bidez agertzen dute. Greziarrek, gorputza berez **baloratzen** dutenez, ez dute eragozpenik izango **gizon-irudiak** ere edertasunez janzteko.

3. **Kristautasunaren eragina nabarmena izan da**

4. Kristautasunaren bidetik etorriko da **euskal kulturaren** emakumearen **mespretxua**. **Goraltxatua** izango den emakumeak **sexurik** gabea izan behar du. **Amatasuna** baloratu arren, Ama Birjina izango da emakumearen eredia. Jainkoaren amak bere haurra haragizko ukiturik gabe sortuko du. Gertaera hau benetan funtsezkoa da emakumeari buruzko kristau ikuspegia ezagutzeko, eta zenbait **euskal idazleren** jarrera ulertzeko. Emakumea, haragizkoa delako mespretxatua, bere birjintasunagatik **sublimatua** izango da. Axularrek eta Frai Bartolome Santa Teresak emakumeari buruz duten **ikuspegia** aztertzerakoan, ezin dugu ahaztu Tertulianok zioena: emakumea gizona galtzeko sortu zen aingeru gaizto bat da.

5. **Euskal literaturako printzak**

6. Elena Olaizolak emakumea **euskal literaturan** aztertu nahi izan du, eta horretarako hiru idazle klasiko (Etxepare, Axular eta Frai Bartolome Santa Teresa) eta moderno bat (Jon Mirande) aukeratu ditu. Hiruretatik Etxeparek bakarrik **balioztatzen** du emakumea. Jon Miranderi emakumeak ez zaizkio atseginak gertatzen eta beste bi **elizgizonek** helburu moralak dituzte gogoan.

7. **Etxepare: emakumerik gabe ez dago zerurik**

8. Etxepareren **idazlanetan**, emakumea lagun eme eta **eztitsu** bezala agertzen da eta gizonaren grinak asetzeko balio du **nagusiki**. Emakumeak gizona **kontsolatzeko** prest egon behar du. «Gizonaren probetxuko emaztia bethi da», dio bere olerki batean.
9. Emakumea beharrezkoa da gizonarentzat, hots, gizonaren etxea taxuz egon dadin eta gizonak **amodioaren plazera** senti dezan. Emakumearen eginkizuna etxe barnekoa da; emazterik gabe ezin da bizi ezta zeruan ere. «Parabizuya nahi enuke emazterik ezpaltz», dio Bernatek.
10. Ez dugu ahaztu behar Etxeparek emakumeari buruz duen **ikuspegia** poeta batena dela; eta, Elenak dioen bezala, oso **idealizatua** da. Etxepareren pentsaeran, Trento aurreko eragina nabarmen-tzen da eta garaiko **matriarkatuaren** ukitua ere suma daiteke.

11. **Axularrentzat, emaztea deabruaren pareko**

12. Axularrek oso bestela ikusten du emakumea. Trentoko **Elizbartzar** Nagusiak **zerikusi** handia izan zuen **elizgizonen** pentsaera moralean. Axularren kezka nagusia garaiko nahaste-borraste **sexuala** zuzentzea zen. Axularrek **Erreformaren** ideiak zapuztu nahi ditu.
13. Etxeparearentzat emakumeak gizona taxutzeko balio badu, Axularrentzat emakumeak «haragiaren aphetitu desordenatuak» pizteko besterik ez dira.

14. Axularrentzat, gizonak daukan arriskurik handiena bere **boterea** galtzekoa da. Gizona, emaztearen aurrean itsuturik, bere besoe-tan murgiltzen da. Emaztea deabruaren pareko da, **erakarmen** berdina du eta gizona infernurantz bultzatzen du. Emakumeak gizona ezertarako balio ez duela uzten du. «Larrutzen eta desegiten baitu», dio Axularrek. Haragiaren grina suaren antzekoa da; «eztu behin ere erraiten asko duela», *Geron* dioenez.
15. Elena Olaizolak Inkisizio garaiko pentsaeratik bereizi nahi du Axular, batez ere suaren **kontzeptua** erabiltzeko eragatik, baina bereizketa hau ez da nahikoa; horretarako, **Inkisizioaren** eta **elizgizonaren** balio moralak aztertu beharko lirateke.
16. Elenak dioenez, emakumearen **jokabidea** epaitzeko Axularrek erabiltzen dituen arrazoiak ez dira moral hutsak; **estetikoak** ere badira. Esate baterako, emazte batek ardoa edatea gaizki iruditzen zaio.
17. **Frai Bartolome: emakumea bekatuaren egile**
18. Frai Bartolome Santa Teresak, XIX mendekoa izan arren, Axularren antzeko moral **sexuala** du. Ez da harritzekoa ere izen-abizen horiekin Freudenaren antzekoa ez izatea.
19. ***Euskal-errijetaco olqueetan, ta dantzeen neurricogatz ozpinduba liburuan***, dantzatik sortzen diren arriskuak salatzen ditu. Bartolomerentzat, neskatilek jatortasunez jokatzeko dute eta ezkonduak, berriz, lotsagabeak dira. Usoa eta behia bezala bereizi behar dira biak, dio Bartolomek.
20. Axularren **idazlanetan** emakumea bekatuaren **eragile** baldin bada, Frai Bartolomerentzat bekatuaren egilea izango litzateke, Elenak dioenez. Garai desberdinekoak izan arren, biak **eliz moralaren** jarraitzaile sutsuak dira. Gorputzaren **mespretxua**, gorputzaren eta espirituaren arteko puskaketa berdintsu ikusten dute. Gorputza menperatu behar den zerbait da.
21. **Mirande: emakumea fantasma txar bat**
22. Jon Mirande **eliz moralaren** babeslea ez izan arren, emakumeari ez dio lore gehiegi botatzen. Mirandek emakumeari buruz duen **ikuspegia** nahiko **ezkorra** da; emakumezkoa gizonezkoaren mendean ez egonagatik, emakumearen **sexuak** ez dio atsedean handirik ematen.
23. Emakumeari beldurra dio Mirandek, fantasma txar bat da berarentzat eta desegin beharrekoa. ***Haur besoetakoa nobelan***, emakumea **objektu** huts bezala tratatzen du eta bere gogoia haurrek **erakartzen** dute.
24. Miranderen olerkietan, Elenak dioenez, **erromantizismo** gehiago dago; eta, **adibide** bezala, «Behin batez Zuberoan» aipatzen digu. Hala ere, emakume helduekin maitasuna lortzeko **ezintasuna** garbi nabarmentzen da haren **idazlanetan**.

25. Elenak dioenez, gure historiarekin **zerikusia** izan duen emakumearen irudia ez da hain baztertua gelditzen Miranderen pentsaeran, hala nola sorginena. **Orhoituz liburuan**, esaldi hau aurkitzen dugu: «Europar sinhesmenegatik bizia eman duten euskaldun sorgin, azti eta behagileen orhoitzapenetan».
26. Lau idazle hauen pentsaera aztertu ondoren, emakumearen irudiak ez du edertasun handirik; batzuetan erlijioaren eraginagatik eta bestetan idazlearen jarrera **ikonoklastagatik**, zenbait idazleri emakumearen gonapeak ez dio goxotasun handirik ematen.
27. **Euskal kulturaren** barnean, beste kultura askotan bezala, emakumeari bere espazioa eta denbora ukatu zaio. Eskerrak **euskal literaturan** beste idazle batzuek poesia gehiagorekin emakumea tratatu duten; bestela, ez zuen infernuan ere tokirik izango.

Juanjo Dorronsoro

- Aposizioak:

Euskal-errietako olqueetan, ta dantzeen neurricogatz ospinduba liburua (19), *Haur besoetakoa* nobela (23), *Orhoituz* liburua (25).

- Zenbait mailegu-hitz:

bertute (2), baloratu (2), mespretxu, mespretxatu, (4, 20), sexu, sexuala (4, 12, 18, 22), sublimatu (4), kontsolatu (8), amodio (9), plazer (9), idealizatu (10), matriarkatu (10), Erreforma (12), botere (14), Inkisizio (15), kontzeptu (15), estetiko (16), objektu (23), erromantizismo (24), ikonoklasta (26).

- Zenbait hitz eratorri:

goraltxatu (4), amatasun (4), balioztatu (6), eztitsu (8), nagusiki (8), erakarmen (14), eragile (20), ezkor (22), erakarri (23), ezintasun (24).

- Hitz elkartu lotuak:

ikuspegi (4, 10, 22), elizgizon (6, 12, 15), idazlan (8, 20, 24), elizbatzar (12), zerikusi (12, 25), jokabide (16), adibide (24).

- Hitz elkartu marraz lotuak:

gizon-irudiak (2).

- Hitz elkartu marraz lotu gabeak:

euskal idazle (0, 4), euskal kultura (4, 27), euskal literatura (5, 6, 27), eliz moralak (20, 22).

Bibliografia

- Elhuyar.** 1986. *Zientzia eta teknika*. Donostia: HABE.
- Elhuyar.** 1987. *Aurrezki-kutxak eta banka*. Donostia: HABE.
- Elhuyar.** 1988. *Udal-administrazioa*. Donostia: HABE.
- Euskaltzaindia.** 1987. *Hitz-elkarketa 1. LEF batzordearen lanak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia.** 1991. *Hitz-elkarketa 3. LEF batzordearen lanak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia.** (Egile: Zalbide, M.) 1992. *Hitz-ekarketa 4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera. LEF batzordearen emaitza. Euskaltzaindiaren gomendio-arauak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- UZEL, Elhuyar.** 1992. *Osasun-zaintza*. Donostia: HABE.
- Villasante, L.** 1981. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñate: Editorial Franciscana Aránzazu.
- Zubimendi, J. R.** 2004. *Ortotipografia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Adibideen iturriak

- Agirre, J.** 1992. Autismoa. *Elhuyar*, 65: 15-17.
- Dorronsoro, J.** 1985. Emakumea zenbait euskal idazleren begietan. *HABE*, 76: 16-17.
- Mungia, A.** 2004. Etorkinak. *Berria*: 2004.11.02 (“Zuzendariari”).